**ERREPORTAJEA** 36KO GERRA ZIBILEAN HILDAKOEN GORPUAK ELGOIBARREN
**GEHIGARRIA** CARLOS GONZALEZI ELKARRIZKETA · **KIROLA** HAUNDIREN AURKEZPENA

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko urriaren 4a/X. urtea/419. zkia



# Elgoibartarrak Espainiako Uso Tiro txapelketetan nagusi

"TIRO BATEKIN BI TXORI BOTA" (esaera zaharra)

# GRE v CEN G1DA

## AROZTEGIAK

**ARANZADI**
Olaso 55 CH
»rr 943 74 34 78
v 670 42 76 63

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
ʔ1' 943 74 31 16

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
s' 943 74 32 38

**LODOSO**
Leihoak
Ermuaranbide, 16
v 943 74 34 90

**LURRA**
Santa Klara, 28 Behea
s* 943 74 40 50

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
v 943 74 36 34

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
v 943 74 05 47

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
v 943 74 03 96

**ETXEKIT**
Antonio Arrillaga, *zlg*
'zr 943 74 43 47

## 1 2 1 7

**ANGEL**
Santa Ana, 5
v 943 74 17 61
v 689 04 92 06

**ONGI**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabibia
943 74 28 80

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
943 74 02 79

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
943 75 50 62
v 607 75 50 62

**ZALDUA**
Urasandi, 26
v 943 74 05 30

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
v 943 74 07 89
v 608 14 30 40

## PINTURAK

**BIOK DEKORAZIOA**
Santa Klara, 11 behea
943 74 15 52
v 606 43 11 19-20

**1PINTZA**
Foruen enparantza, 4
943 74 04 40
v 607 74 04 40

## PROIEKTUGILE -K

**JESUS M[1] GABILONDO**
Ubitarte, 4-5 esk.
v 670 41 20 73

## ELEKTRIZITATEA

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
v 943 74 12 80

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
v 943 74 12 38

**JOSEBA**
Pedro Muguruza, 29
*v* 943 74 09 02
v 659 93 49 64

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
v 943 74 13 76

## IGELTSERITZA

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
943 74 34 18

**ASKETA**
OSiO, 7 DEBA
.21 629 34 43 89

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
lzr 943 74 29 87
v 679 19 77 47

## ISOLAMENPUAK

**GLAS CONTROL S.L.**
Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47, pabiloia
v 943 74 30 94

BARREN urteurrena

## 3 itxura aldaketa 10 urtetan

92ko abenduan, telebista zaharraren antzera, zuri-beltzean azaldu zen BARREN jendaurrera. 20 orriko informazioa soinean hartuta, azaldu ere. Batere luxurik gabe baina kalera irteteko lotsarik gabe, txukun. Halere, ez pentsa hasierako arropa haiek luzaroan jantzi zituenik. BARREN ere poxpolin xamarra da eta, hiru urtetik behin, soinekoa aldatu egin du. Eta aldaketak, kanpoan ez ezik barruan ere izan dira. Hasieran informazio xumea bazen ere, gerora berrikuntza eta hobekuntza ugari izan da. Beti ere, elgoibartarron gustukoa izateko desioarekin. Akorduan al daukazue BARRENen lehen soineko arrosa hura?




1. dea • 1992ka urrarrilak 15
Azala: Arrosa 1 argazki zuri-behzean
Barruan: Dena zuri-beltzean
Orri kopurua: 20 orrialde




82. alea - 1994ko otsailak 25
Azala: Anosa eta kdoretako argazkia
Barruan: Diseinu berria eta hainbat atal aldatuta
Orri kopurua: 28 orrialde




175. alea • 1996ko abenduak 5
Azala: Koloretan eta ezkerrean atal esanguratsuenak zutabean.
Barruan: Diseinu eta atal berriez gain, kdore gorria.




332, alea • 2000ko irailak 8a
Azala: Ezkerreko zutabea kendu eta azala koloretan.
Barruan: Diseinua eta atalak aldatu-ta. Kolore okrea gorriaren ordez.



# Goizeko sugetzarra

Astelehenetatik ostiraletara, goizeko lehen orduetan, sugetzar amaigabea luzatzen da gure herria zeharkatzen duen errepidean. Sugetzar honen sabelean gidari mutuak, bakoitza bere burnizko kapsulan, sugetzarraren erritmo astunarekin etsita daude. Bakar batzuk "kopilotoa" daramate alboan. Gehienak, berriz. bakarrik doaz lanera. Bakarrik joateak "askatasun" gehiago ematen omen die.

"Kopilotoek" egunkaria irakurtzen dute. Lantokira kilometro pare bat besterik ez badago ere, bi kilometro horiek atzean uzteko behar duten ordu laurdenean egunkariko titularrak irakurri eta kirol atalaren errepasoa egiteko denbora nahikoa izaten dute. Titularretako hatek datorren ekainetik aurrera A-8ko peajea erdira jaitsiko dela dio. Beste batek, Maltzagatik Urbinara doan autohidearen lehen zatia hurrengo urteko gabonetarako ireki ahal izango dela. Elgoibarko herrietan, berriz, Urasandi auzoan aparkaleku berriak egingo direla.

Gure errepideetako sugetzarrarenak egin duela uste al duzue? Errepideen erabilera bultzatzen duten neurri guzti hauek trafiko arazoak arinduko dituztenaren itxaropenik ba al duzue? Mila aldiz esan digute adituek trafiko arazoak konpontzeko errepideen erabilera murrizteko neurriak premiazkoak direla. Biolentziaren arazoa polizia gehiagorekin konpontzen ez den bezala, trafikoaren arazoa errepide eta aparkaleku berrickin ez dugu konponduko. Arazoaren sustraira jo eta epe luzeko estrategia garatu behar dugu. Gure agintariek jarraitzen duten estrategiak arazoaren konponbidea zailagoa bihurtu besterik ez du egiten.

Alberto Ansuategui

Kexak ........................................ 5
motz motz ........................................
gehlgarria ........................................ 13
kiRolAk ........................................
aGenda ........................................ 24

# Urruzunoren begi ezkutua

## Erretratu zaharra



Arriagatik, Urruzunotik, San Migeletik, Garagartzatik, Altzola bertatik, auzune guztietatik bildu zen jendea, eta bide ertzak bi ordu lehenago bete ziren. Askok eta askok erropa dotoreenak jantzi zituzten, bero harekin zentzurik ez zuten traje ugari, gerrikoak, txapelak, zenbait txaketa ere bai. Argazkietarako txori galduaren itxura hori nabarmena zen; momentuan, bertaratutako elgoibartar ezagunenen inguruan, eta gerora, erretratu zahar honi begira.

Donostiatik, Deba aldetik etortzekoa zen automobila, askok sekula ikusi ez zuten tramankulu zaratatsua, eta ziotenez, hiruzpalau ere izan zitezkeen, Juan Txit Gorena eta laguntzaile andana bainuetxearen onuren bila. Gerturatu ahala, gehientsuenen txalo eta zalapartaren abegia ez zen urrun izango, lehen, eta orain berdin, gutxiren luxuak baitira gehienen handinaiak,

**Mikel Artola**

ASTE KARIA

# BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGO1BAR
lx 943 74 41 12
Publizitatea:
x• 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topaguneacomfbarren
ARGITARATZAILEA
Elgo barho Izarra

LAGLINTRAILEA Elgoibarko 1../dala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDAR:A AGIEff Orbea Kxzeunx Irati Agirreezeldegi, PUELIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATIAILEA Jaione lJnanue ADIAINIDTRARIDA Amaia Rodngez GEREIMJA Jon Peli Uriguen KOLABORATZALEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansuategi, Edurne Bilhao, Golzon Aniela, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanilo Goroelila, Ainhoa Andonegt, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AtALEKO ESAIRA RAMARRA Golzon Garateren IlblliUllk INPRIMATEGIA Gettu Koop. E. TIRADA 4.025 ale LEGE GORDAILIJA SS-1.038/92 ISSN 1139-1055

ELGOIBARKO IZAR1A
UrVa

*Elgoibarko Udalak, Ensko Jaurlaritzako Knhura Sailak eta Fong Althuldiak diru: lagundutako*

xix kutxa

k-DANOBAT SSGOITI GRDRODANORAI 4IN ESTAEtTA

**OIERKI** IGOGAIWAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

55 943 82 01 09 `e Faxa: 943 82 01 62
Indalezio Ojanguren 2, behea II 20600 EIBAR

**Cordon,Vilarcharc.b.**

**DEKI:DRAZIC)A**

**MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERT1KALAK, GOTELE** ERROTULAZIOA, **PINTURA OROKORRA.**

**San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70**

## 4:121A.Gt



• Emakume batek esan cligunez, **Bernardo Ezenarro kaleko alde zaharra ez dute garbitzen. "P.M** Urruzuno kaletik B. Ezenarrora doazen eskilarak zikinkeriaz beteta egoten dira asteburuero, portalean txiza egiten digute, eta gainera, kristalak apurtzen dituzte". Honetaz gain, Bernardo Ezenarroko parkean umeentzako zerbait jarri beharko luketela adierazi digu, jendeak txiza egiteko bakarrik erabiltzen du-eta.



• Bi mutikok esan digutenez, **Leku Ederreko iturrian ura zuzenean erortzen da lurrera,** eta oso bustita egoten da, "Alkantarila bat jarri beharko lukete, bertatik pasatzen garenean busti egiten baikara".

## 12111©111

• Emakume batek **San Pedroko etxeetatik Lerunera doan zubian gurpildun aulkiak pasatzeko arrapala egin dutenak** txalotu nahi ditu. "Berandu bada ere, azkenean egin dute ezinduentzako arrapala. Hala ere, hasieratik egin behar luketela uste dut". Emakumeak bestalde, Santa Kiarako elizan eskailerak daudela adierazi digu, eta hemen ere arrapala bat egin beharko litzatekeela gaineratu du.





# Ibko Gerra ZilUa

# gotipti hgalloben

*6 Aturte pasa dira 36ko Gerra Zŕbiletŕk. Gero Veta gutxiago dira herrian garai hura bizi izan zutenak, beste batzuek aitxitxa edo amamari entzun dizkiote gerra kontuak. Felix Etxeberriak 10 urfe baino ez zituen Azkarate aldean tropak, geldiune bat egin eta gero, E1golbartik Kalamuara abiatu zirenean. Gogoan ditu oraindik garai hartako tiro hotsok eta gutxik jakingo duen beste sekretu bat ere ondo gordea izan du: Gerran hildako hiru gazteren gorpuak Sallobente-Ermuaran bailaran lurperatu zituzten. Berak jakin badaki zein lekutan dauden ehortzita gorpuak eta herritarrei horren berri eman nahi izan die.*

Kurutzeta baserriaren parean ezkerrera doan bidea hartuta hasi dugu ihilbidea. Garai batean bidea asko erabiltzen bazen ere, denborak eta sasiek lekua hartu dute. Hala ere, iritsi gara lehen hildakoa lurperatu zuten tokira. Bidean Felix Etxeberriak irailaren 21 hartako kontuak azaidu dizkigu. "Reketiak etxe paretik dotore jantzitxa pasau zianian urten genduan harek ikustera. Tropiari Arratetik botatako kainonazo batek gure etxian oso urrian jo zaban. Gurasuak bilurtu zian, guri behintzat azkar asko esan ziguten etxian sartzeko". Azkaraten behetik gora zetozela goiko partean tiroketa txiki bat egon zela uste du Felixek. "Enterrauta daozen honek eriduta hil zian, edo harrapau eta bertan hil zitxuen ez dakitx. Igual eukiko dabe buruan balia, eta ataratzen ditxuenian jakingo da".

## GORPUAK IKUSTERA

Hiru dira Felixek dakiela behintzat Elgoibarren lurperatutako gorpuak. Gizonak ehortzi zituztela jakinda, askorik pentsatu gabe ikustera joan zen Felix. "Gizonak enterrau zitxuen eta ikustera jun ginan. Ni bakarrik ez, anaixakin edo auzoko beste mutiko batzuekin jun nintzala pentsatzen dot. Momentu haretan txakurrak lurra kendu eta tripak bistan zaukazen gorputzak. Goguan dakat zela bota genduzen harrixak hildakuan tripara eta zela botia eitxen zaben".

Agerian geratu zirenean ikusteko aukera izan zuten Felixek eta berarekin zirenek, baina Sebastian albaitariak gorpuak bistarazi zirela jakinda, berehala eman zuen berriz lurperatzeko agindua.

Lurretik atera eta ikertu arte ez dago jakiterik nola hil ziren ezta zein diren ere. Felixek ez daki nongoak ziren. "Orduan entzun naban hildakuetako bat Mendarokua ete zan, baina jakin ez dakit. Andoainen badabil mutil bat Gerra Zibilian desagertutako andoaindarreri buruz inbestigatzen, baina ez dabe pentsatzen Andoainguak dianik".

## JUARISTI HAUNDIN GELDIALDIA

Felixek Juaristi Haundi baserrira eraman gaitu ondoren. Bertako atarian hartu gaitu Sebastian Leiaristik eta gerrako kontuak azaltzeko prest agertu da. Bere anaiak Josek eta beheko baserriko beste mutil batek goikoen aginduz enterratu zituzten hiru hildakoak. Sebastian 8 urteko umea zen artean eta pasatako beldurra ez du oraindik ahaztu.



*Felix Etxebertia Juaristi Haundi baserriko nanita eta Sebastiairtikin etzeko atarian..*

# eko lurretan

Felix Etxeberriak nonbait entzun bezala kontatu digu Juaristi Haundin pasatakoa: "Herriko euskaltzale bat ibili zan baserriz baserri maoiz jantzitxako jende arriskutsua zatorrela eta leihuetan koltxoiak ipintzeko eta sua eitxeko esanez. Baina falangistak ere berdin jantzitxa azaldu zian Juaristi Haundira. Hemenguek "aqui estamos todos rojos" esanaz hartu zitxuen halaxe esateko agindua jasota zaken-eta. Orduan, kanpora atera eta ilaran ipini zitxuen afusilatzeko. Sebastian aitxagandik urruti ipini zaben eta aitxak holaxe esan zion: Sebastian etorri hona, alkarren onduan hil bihar juau-eta. Falangisten artian egongo zan euskeraz zakixanen bat eta igarri ziuen ez ziala gorrixak".

**"Enterrauta daozenak eriduta hil ziany edo harrapau eta hertan hil zitxuen, ez dakitx"**

Felix Etxeberria

Kontu honek gauza gehiago gogoratzeko beta eman dio Sebastian Leiaristiri: Etxe hau dana balaz markauta egon zan, ez dakit Azkaratetik jaurtitxakuak ala hona zatozela botatakuak izan zian. Gero Kalamuara jun zian armak bizkarrian zitxuela eta kainoiak kaminuan goitxik hehera pasau zian". Kalamua beraien baserritik bista-bistan egonik, guztia ikusten zuten eta hango tiro hotsa sekulakoa zela esan digu Sebastianek. Gogoan du nola San Migelen gora baserritarrek idiekin generoa Kalamuara eramaten zuten, "Inguruko baserritxar danak txandan ibiltzen zian. Berdin zan ze aldetakua izan, berdin gorri edo zuri. Baserritxarren artian Francon aldekuak gutxi zian, gehixenak ez alde ez kontrakuak".

Hirugarren gorpua izango da bilatzen zailena. Gure ibilbidea pinadi batean amaitu dugu. Orain, adituak bertaratzea, hildakoak lurpetik ateratzea eta ikerketa egitea baino ez da gelditzen. Honela, Gerra Zibilari buruz gehiago jakin ahal izango dute herritarrek.

## HIRU GORPU, HIRU LEKU

*Lehenengo hildakoa Amestiko lurretan dago ehortzita, garai batean Pararapan baserrikoak zirenak. Felixek buruz gogoratzen du lekua. Gainera, lur saffeko aiderdi horretan aldapa dago eta hildakoa dagoen lekuan lautu egiten da terrenoa. Felixen ustez ez da lan askorik egin beharko hezurrak aurkitzeko, nahiko goian egongo balta.*





*Gelatxo baserriko lurretan dago bigarrena, Juaristi Haunditik gertu. Mendi muino txiki batean zela dauka gogoan Felixek, eta orain ere mendixka erraz ikus daiteke,*

*Hirugarrena, pinudi batean dago, Garai artan garaoa besterik ez zegoen **lur haletan. Beraz, horrek zaildu** egin dezake leku zehatza zein den asmatzea. Hala ere, Felix Etxeberriak bŕ lurren arteko muga hartu du erreferentzia moduan, eta inguru horretan izan behar duela dio.*



### Euskal Herrian 3000 gorpu desagertuta

1936ko gerran hildako asko iurperatu zituzten, hobi komunetan batzuk eta Sallobenten bezala bakarka besteak. Piskanaka hobi horietako batzuk agertzen ari dira Euskal Herrian. Adituek honako datuak eman dituzte argitara:

Espainian: 30.000 gorpu identifikatu gabe

I Euskal Herrian: 3.000 gorpu desagertuta

►Gipuzkoan: 600 gorpu desagertuta

## Debekua jaso arren "Gora Euskal Herria" lemapean bazkaria egin zen Plazan

### Batasunako zinegotziek baimena ukatzearen ardura zeinek duen jakin nahi dute

Joan den larunbaterako manifestazioa eta bazkaria antolatu zituzten presoen lagunek "Gora Euskal Herria" lemapean. Manifestazioa normaltasunez egin arren, bazkaritarako mahaiak prestatzen hasi zirenean ertzainak plazara etorri eta bertan bazkaltzeko baimenik ez zutela adierazi zieten antolatzaileei. Agindua bete ez eta 30 lagunek Plaza Handian bazkaldu zuten.

Gertatutakoa kontatzeko eta debekuaren aurka daudela azaltzeko prentsaurrekoa eman zuten Elgoibarko Batasunako zinegotziek eta larunbateko bazkariaren antolatzaileek. Esan zutenez, "baimenak eskatuta genituen eta Barne Batzordeko buruak ez zuen ezezkorik eman. Baina ostiralean udaletxetik dei bat jaso genuen esanez, Plaza ez zela bazkaltzeko lekua eta Jose Mari Oruesagastik baimena ukatzen zigula. Larunbatean udaltzainek esan ziguten sargentuaren ordena zutela bazkaria eginez gero ertzainei deitzeko. Horrela, mahaiak jartzen hasi bezain laster ertzainak etorri ziren. Gure delitua zein zen eta zeinen aginduz zetozen galdetuta alkatearen ordena zela eta falta administratiboa egin genuela esan ziguten".

**Arduradun bila**

Gauzak argitzeko Udalera jo dutenean baimena ukatzearen ardura inork bere gain hartu ez duela salatu nahi dute antolatzaileek. Batasunako zinegotzien esanetan, alkateak, alkateordeak, sarjentuak eta Barne Batzordeko buruak guztiek dute "protagonismo nahia. Bizi dugun egoera politikoan Garzonen ikasle asko dagoela pentsatzen dugu. Aprobetxatu dute ezker abertzalearen aurka dagoen jarrera politikoa, arduragabekeria handiz, eskubideak urratzeko eta tentsio politikoa Elgoibarren plazaratzeko".



*Mahaiak jarri eta berehala azaldu ziren ertzainak. Goiko argazkian, prentsaurrekoa.*

Honek guztiak ez dituela baztertuko eta beraien proiektu independentista eta sozialista aurrera ateratzen lanean jarraituko dutela esan zuten **Batasuna** alderdiko zinegotziek. Bide batez, herrian egingo dituzten ekintza politikoak ez oztopatzeko eskaria ere luzatu zuten.

## Andrea Ibarluzeak irabazi zuen eskualdeko perretxiko lehiaketa

### Migel Angel Mujikari Bernabe Mujika saria eman zioten



Karakate Mikologia Elkarteak antolatuta eskualdeko perretxiko lehiaketa izan zen joan zen igandean. Gaztetxoek osatutako 37 taldek hartu zuen parte eta irabazlea Andrea Ibarluzea izan zen. 160 perretxiko espezie ezberdin bildu zituen berak. Antolatzaileek esan digutenez, "partaide asko izan da aurten, eta espezie ezberdin asko batu dituzte gaztetxoek". Amanita phalloides eta Entoloma sinuatum sortarik onenen sariak **Mikel** Galarzak eta Iñigo Zubiaurrek irabazi zituzten hurrenez hurren. espezie hauetako perretxikoak ere inoiz baino gehiago ikusi dira aurten antolatzaileen esanetan.

Bestalde, Bernabe Mujika saria aurten Migel Angel Mujikari eman dio Karakate Elkarteak. "27 urte hauetan elkartekoa izan gabe perretxiko lehiaketa aurkezten egin duen ahalegina eskertu nahi izan dugu sari honekin",esan digute antolatzaileek.

**IRABAZLEAK**

1. Andrea Ibarluzea
2. L. Perez, J. Rodriguez eta A. Lopez
3. Mikel Galarza
4. Iñigo Zubiaurre
5. M. Zubiaurre, A. Izagirre eta U. Zubiaurre.

Amanita Phalloides sorta: Mikel Galarza

Entoloma Sinuatum sorta: I. Zubiaurre

Bernabe Mujika saria: M. Angel Mujika

## Larunbat gauetako autobus zerbitzuak urte bukaerara arte jarraituko du

Asteburu honetan beteko da urtebete Gipuzkoako Foru Aldundiak larunbat gauetarako autobus zerbitzua martxan jarri zutenetik. Urtebeteren ostean zerbitzua urte bukaerara arte behintzat luzatzea erabi dute. Jende gehiena Elgoibar eta Eibar artean mugitzen dela esan digute arduradunek. Hala ere, gainontzeko ibilbideetan ere ibiliko dira autobusak. Eibar eta Mutriku eta Eibar eta Azpeitia arteko bidea egingo dute Pesako ibilgailuek.






## Karakaten pasa dute asteburua Ellgolbar. Mendaro eta Soraluzeko 38 gaztek

Elgoibar, Soraluze eta Mendaroko 12 eta 16 urte bitarteko 38 gazte Karakaten izan dira asteburuan. Gaz-T taideak, Mendaroko In Leike eta Soraluzeko Pil-Pilean elkarteekin antolatutako ibilaldia Madalan abiatu zuten eta Atxolin azpian akanpatu zuten. Gauerako sua prestatu eta bertan erretako saiheskia eta txorizoa afaldu zituzten. Ondoren, jokuak eta sexologia tailerrak egin eta gaua kantuan amaitu zuten. Hurrengo egunean, San Andres auzoan egin zuten bazkaria. Gaz-T taldetik gogorarazi nahi dute urriaren 26rako irteera antolatu dutela Mandaroko kobazuloak ezagutzeko.

## Folklore Jaialdiko zozketan sarituak izan zirenei erosketa txekeak eman dizkie Txankakuak

Txankakua Merkatari Elkarteak hainbat zozketa egin ohi ditu urtean zehar. Horietako bat Nazioarteko Folklore Jaialdiaren aitzakian egiten duena da. Sarreren truke zozketan parte hartzeko zenbaki bana jasotzen dute bertaratutakoek. Zozketa jaialdian egin eta 60 euroko hiru sariak aste honetan hanatu dituzte. Aintzane Uriguenek, Elisabet Kalzakortak eta Miren Leiaristik Txanakuako Ana Mochalesen eskutik jaso zituzten Txankakuako dendetan erosketak egiteko txekeak.



## Aprablo depuradora egiteko lur mugimenduak 4 billabetetan amaituko dituzte

Apraizeko depuradora egiteko lanak aurrera doaz. Gipuzkoako Foru Aldundiko ur departamenduak Galdiano enpresaren esku utzi ditu lur mugimenduak eta Apraizera gerturatzeko bidea egiteko lanak. Obrek 1.560.452 euroko kostua izango dute eta lau hilabeteren buruan amaituta egon beharko dira lanak.

### Ibarretxe lehendakariak egoera politikoari irtenbidea emateko proposamena aurkeztu du

# BA AL DUZU EUSKAL HERRIKO EGOERA NONPONDUKO DEN ESPERANTZARIK?



## WillGUEL
83 **urte,** jubilatua

Esperantzia euki ein bihar da. Ibarretxen proposamenan alde nao, baina PP eta PSOEn jarreriakin ezin da ezer ein. Edozer entzun aurretik, beti kontra ipintzen dia.

## Ma DOLORES LANDA
**60 urte, etxekoandrea**

Esperantzia ez da sekula galdu bihar. HaIa ere, epe motzian ez da konponduko, baina Ibarretxe ondo ari dala iruditzen jata. Kontrako erreakzivak bere proposamena baino gehixao entzun dia.





## JULIAN CONDE
**62 urte, jubilatua**

Bide honetatik jarraituz, lortuko dutenaren esperantza daukat. Hala ere, arazo honen irtenbidea ez da erraza. Bakoitzak berea defendatzen duenez, Ibarretxeren kontra esan duten guztiak ez nau harritu.

## SILUIA CRESPO
**24 urte, administrariа**

Egoera dagoen moduan, esperantza edukitzea zaila da. Politika ez zait gehiegi interesatzen, eta ez dut Ibarretxeren proposamena ezagutzen. Jangoikoak nahi duena izan dadila.





## MAMUI ANTON
**32 urte, erizain laguntzallea**

Esperantza eduki egin behar da. Egoera konpontzea ona izttngo litzateke guztiontzat, baina kanpoti k Eu ska 1 Herri ko kontuetan gehiegi sartzen dira. Hala ere, bide onetik goazela uste dut.

## JERONIMO VALERO
**53 urte, torneroa**

Esperantza badaukat, baina Madrilen onartu behar dute proposamena. Estatuko telebistek errealitatea itxuraldatzen dute, eta hortik datoz kontrako erreakzio guztiak. Erabakiak hemen hartzea lortu behar dugu.



() IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZ1A ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABEI
`4■1 IZENA EMATEAN %i OEKO BEHERAPENA
lawle elay autooex te":64 16 epteelelut,
LARRAÑAGA
uTOESKOLA
Tel: 943 74 10 114]




Mari, crima LArre:, Basajauna,

Olentz(3)ro, Kixmi, Ilazki...



**guztiak aurkeztuko dizkizu EGUNKARIAk DOAN.**

**Egunero, asteartetik igandera, Euskal Mitologiako pertsonaien irudiz eta istorioez osatutako bilduma eskainiko dizugu.**

**Urriaren** San, **igandearu, EGUYKAMArekin** karusta **eta Ama Lurraren Iamina DOAN.**

unkaria

# IRAILA

Atal honetan zuen seme alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz barren@topagunea.com helbide elketronikora.

## JAIOTAKOAK



**Irati Marcos Sanchez**
Irailak 7
Jose Javier eta Miren Edurne



**Irati Egaña Pagoaga**
Irailak 17
Ifligo eta Maria Jose



**Sergio Arevalo Sanz**
Irailak 8
Jose eta Mari Carmen



**Miren Rascon Arriola**
Irailak 19
Marciano eta Arrate



**Gorane Aranzabal Leiaristi**
Irailak 9
Juan eta Amaia



**Nerea Arnedo Zamorano**
Irailak 23
Fernando eta Victoria



**Iker Olabe Ibarluzea**
**Irailak 16**
Jose Agustin eta Miriam



**Nerea Beristain Cerrajon**
Irailak 24
Luis eta Montse

## HILDAKOAK

**Basilia Lejardi,**
92 urte, irailak 5
**Victor Zabala,**
70 urte, irailak 6
**Manuel Osoro,**
80 urte, irailak 7
**Matilde Zubiaurre,**
43 urte, irailak 7
**Carmen Rodicio Araujo,**
96 urte, irailak 7
**Amparo Soldan,**
70 urte, irailak 8
**Magdalena Santiago,**
86 urte, irailak 14
**Lucio Ostolaza Zabaleta,**
86 urte, irailak 15
**Maria Carmen Alcibar,**
73 urte, irailak 24
**Petra Agirregomezkorta,**
87 urte, irailak 25
**Jose Galarraga,**
76 urte, irailak 29

## EZKONTZAK

**Endika Gonzalez** eta **Mirari Tejero**
Irailak 21


ThnrbrrIZIA

zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

*KUTXAK TRASLADOAK .KOROAK*



**NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.**

**Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
**Tel.:** (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
Mobila) 608 77 07 01

# BARREN
ASTEKARIA

2002ko urria/X. urtea/419. zkia

GEHIGARRIA HILEKO ELKARRIZKETA


## elkarrizketa



LAN ASKO EGINDAKO GIZONA DUGU CARLOS GONZALEZ. GAUR EGUN JUBILATUTA DAGOEN ARREN, 62 URTETAN OGIBIDE DESBERDINAK EZAGUTU DITU. TRENBIDEKO OBRETAN LAN EGITEN HASI ZEN, TXARTELAK SALTZEN ARITU ZEN ONDOREN, AZKEN1K ESTAZIOKO NAGUSIA 1ZATERA IRITSI ZEN ARTE. HONEKIN BATERA, ESKUALDEKO KORRESPONTSALA IZAN ZEN RNE IRRATIAN. GAURKOAN GURE ARTERA EKARRI DUGU, BERE BIZITZAKO ESPERIENTZIA ETA BITXIKERIAK KONTATZEKO.

# Corios Gonzalez

"TRENA BIDAIATZEKO MODURIK ZIURRENA DA"

*IZATEZ IRUNDARRA DA CARLOS GONZA1EZ BAINA URTE ASKO DARAMATZA ELGOIBARREN. BERE ATTA ERE TRENAREN MUNDUKO LANGILEA ZENEZ ALDE BATETIK BESTERA BIDAIATZEA TOKATU ZITZAIOIV. GERRA GARAIA FRANIZIAN PASATTJ ZUEN AMA ETA ANAL4-ARREBEKEV. VALLADOLIDEN ERE URTE ASKO IGARO ZTIVEN, BAINA AHAL IZAN ZUEN BEZAIN LASTER, EUSKAL HERRIRA ITZ1111 ZEN. DONOSTIARA IRTISI ZEN LEHENENGO, ETA EUSKAL HERRIKO ESTAZIO GEHIENAK EZAGITU OSTEAN, 1971. URTEAN AILEGATU ZEN ELGOIBARRERA BIZIPEN HANDIKO GIZONA DA CARLOS, ETA ONDORENGO LERROETAN BERE BIZTIZAREN NONDIK-NORAKOAK BILDU DITUGU.*

# Carlos Gonialei

# "Jendeak trenen ordute




**I Noiz eta nola iritsi zinen Elgoibarrera?**

Irunen jaiotakoa naiz. Aita treneko Iangilea zen, eta gerra garaiko arazo batzuen ondorioz, kaleratu egin zuten. Frantzian hasi zen aita lanean, eta gerra bukatu ostean itzuli ginen. Ez zioten lanik ematen Euskal Herrian, eta urte askoan Valladoliden bizi izan ginen. 18 urte beteta, tren munduan hasi nintzen lanean. Argi neukan Euskal Herrira etorri nahi nuela. Donostiara iritsi eta estazio askotan Ian egin ostean,1971. urtean iritsi nintzen Elgoibarrera.

**Nola hasi zinen lan honetan?**

Txikitatik ezagutu nuen lan hau etxean. Aita honetan aritzen zen eta asko gustatzen zitzaidan. Igeltsero bezala hasi nintzen lehenengo, baina 18 urte bete nituenean, ikasketak egin, azterketa bat gainditu eta treneko bidea hartu nuen.

**I Estazioko nagusia izatera iritsi zinen, ezta?**

Bai, lan asko egin ostean estazioko nagusia izatera iritsi nintzen. Trenbide eta obretako peoi bezala hasi nintzen Donostian, baina bihotzeko arazo bat zela-eta, lana aldatzeko gomendatu zidan medikuak. Ikasketa gehiago eginez, postuak igo nituen, estazioko nagusia izatera iritsi arte.

**[1]7RENEZ BIDAIATZEN DUDANEAN GAUZA MEKANIKO GUZTIETAN FIJATZEN NAIZ"**

**Zein da estazioko nagusiaren lana?**

Gauza asko egin behar dira. Trenari irteera eman, trenak koordinatu eta inork ikusten ez dituen ofizinako lan asko. Errespontsabilitate handiko lana da.

**Nolakoak ziren orduko trenak?**

Oso desberdinak. Oraingoak askoz hobeak dira, seguruagoak. Haiek txatarra hutsa ziren.

**I Zer iruditzen zaizu abiadura handiko trena?**

Ez naiz sekula ibili, baina beraren alde nago. Autopista bezala babestuta dago trenbidera inor ez sartzeko, eta oso erosoak omen dira.

# gia galdetzen dit oraindik kalean"



**Zure laneko zein oroitzapen dituzu?**

Oso onak. Lagun asko egin nituen, eta oraindik, jendeak trenen ordutegia galdetzen dit kalean. Askok oraindik lanean jarraitzen dudala uste du, eta jubilatu karneta egiteko eskatzen didate.

## "TRENAREKIN EDO HERRIAREKIN ZERIKUSIA DAUKATEN ARTIKULUAK GORDETZEN DITUT "

**Gaur egun zein garraiobide duzu gustukoen?**

Trena. Asko gustatzen zait, eta bidaiatzeko modurik ziurrena da gainera. Gauza mekanikoetan fijatzen naiz. Gainontzekoek paisajea begiratzen dutenean, nik trenbideko kontuei erreparatzen diet. Lehen askoz gehiago bidaiatzen zen trenez. Gaurko jendeak nahiago ditu beste garraiobide batzuk.

**Nola daude egungo trenbideak?**

Asko hobetu dira. Trenak makinista dominatzen du orain. Semaforoa gorri badago, trena berez gelditzen da, eta baimendutako abiadura gainditzen badu, trenak bakarrik frenatzen du.

**Zein tren estazio duzu gogokoena?**

Denetan dauzkat oroitzapen oso onak. Zaila da bat aukeratzea, baina Bergaran oso gustura egon nintzen. 1964. urtean iritsi nintzen bertara, eta pena handia hartu nuen estazioa itxi zenean. Lagun asko egin nituen. 1971. urtea zen, eta orduan etorri nintzen Elgoibarrera.




**Kazetaritza munduan ere aritu zara, ezta?**

Bai, betidanik gustatu izan zait mundu hau. Bergarara iritsi nintzenean, RNE irratian eskualdeko korresponsaia izateko aukera suertatu zitzaidan. Hasieran lagun batek egiten zizkidan kronikak, baina berehala hasi nintzen bakarrik lanean. Bost urtetan aritu nintzen Bergaran, eta beste bi Elgoibarren. Denetariko informazioa ematen nuen: Udaletxeko kontuak, istripuak, kirolak, ekintza kulturalak... Korrespontsal guztiak elkartzen ginen albiste garantzitsuenak tratatu eta zabaltzeko. Abuztuan askotan, bakarrik gelditzen nintzen herrian, eta nik bidaltzen nuen informazioa komunikabide guztietara.

**Oraindik ere, artikulo ugari gordetzen duzu, ezta?**

Bai. Langabezia garaia zen. Estazioko lanari heldu, eta korrespontsal postua lagun bati utzi nion. Asko gustatzen zitzaidan lan hura, eta gaur egun ere, trenarekin edo gure herriarekin zerikusia daukan informazio guztia gordetzen dut. Familiakoek eta lagunek ere, askotan ekartzen dizkidate kanpoko egunkariak.

**Hainbeste lan egin duen gizonak, nola pasatzen du orain denbora?**

Ez daukat aspertzeko denhorarik. 1993. urtean jubilatu nintzen, baina beti daukat zeregina. Ortuko lanak eta animaliak asko gustatzen zaizkit, baita irakurtzea eta gauza berriak ikastea ere.

**Zure bizitzako trena hartu duzulakoan zaude?**

Hori ez da inoiz jakiten. Gauza asko egin ditut nire bizitzan. Gizon langilea izan naiz, eta oso gustura nago lortu dudan guztiarekin. Hala ere, euskara ikastea gustatuko litzaidake.

# atzera begm

## pausoz pauso













1. argazkia: 1971. urteko argazkia. Durango eta Zumarraga arteko linean, Bergaratik pasatu zen azkeneko trena.

2. argazkia: 1971. urtean, Bergaratik pasatu zen azkenetariko merkantzia trena.

3. argazkia: 1972. urtean Bergarako Lasa jatetxean ateratako argazkia. Herriko kronistak zirenen erretratua. Ezkerretik eskumara: Jose Maria Larrea (El Diario Vasco), Carlos Gonzalez (RNE), Santos Alustiza (La Voz de España), Mari Carmen eta Juanita Lasa, Jose Mari Urrutia (El Correo-Loiola Irratia), Marcial Moreno (Norte Express), Juan Luis Bikuña (Radio San Sebastian) eta Luis Mari Garitano (Loiola Irratia Kirolak).

4. argazkia: 1977. urtean Elgoibarko estazioan ateratako erretratua.

## besteen ahotan



1936. urtean, Gerra garaian Baionan ateratako argazkia. Carlos, bere ama eta anaia-arrebekin.

Duela 36 urte ezagutu ziren Carlos eta Gregorio Esnaola (Musillo). Carlos Estazioko Nagusia zela, egunero egiten zuten topo bertan. Gregoriok esan digunez, oso umoretsua eta langilea da Carlos: "Egunero ateratzen gara ixikiteora elkarrekin, eta berba asko egiten duen gizona da Carlos. Kontu asko esaten ditu, umore oso ona dauka eta sekulako laguna da. Gizon langilea da, eta beti laguntzeko prest dago".

# informazioa

## Farmazia - okindegia

| EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|
| 4 Zabaleta | Zabaeta |
| 5 Etxeberria (Errosorio kalean) | Etxeberria |
| 6 Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 7 Ebariez | Ibañez |
| 8 Bidasolo | Bidasolo |
| 9 Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 1o Fernandez | Fernandez |

**FARMAZ1AK**

IBAÑEZ, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,
Herriko enparanfza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

'eguerdiko 2ak arle

**OKINDEGIA**

5 igandea Doña Mercedes

## EuskoTren

DONOSTIA-BILBO
Egunero
Doralstiaammu 5.45 06.45... 20.45
Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02
* ialegunclan 7,45ean hamko dira

BILBO-DONOSTIA
Egunero
B1.11x) 06:00 7.00... 20.00
Eigoihar 07.23 08.23... 21.23
ja iegunetan 8 00etan hasiku thra

## EuskoTren

OBI SAK

MENDA110-ELGOIBAR
Egunero
Mendaro 07.50 08,50,,, 21,50

ELGOTBABALENDARO
Astegwletan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25- 21.25

Jaiegunetan
Elgobar 08 25 09.25 10.25... 21.25

## PES.AUTOBUSAK

LARUNBAT GAUA

EIBAR-ONDARROA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eihar | 00.30 | 02.30 | 04.30 | 06.30 |
| Eigaibar | 00.40 | 02.40 | 04.40 | 06.40 |
| Deba | 00.50 | 02.50 | 04.50 | 06.60 |
| Mutriku | 00.55 | 02.55 | 04.55 | 06 55 |
| Ondarroa | 01.05 | 03.05 | 05.05 | 07.05 |

ONDARROA-EIBAR

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ondarroa | 23.30 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Niutriku | 23.40 | 01.40 | 03.40 | 05.40 |
| Deba | 23.45 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| **Elgoibar** | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
| **Eibar** | 00.05 | 02.05 | 04.05 | 06.05 |

EIBAR-MUTILIKU

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eihar | 01.00 | 02.30 | 04.30 | 06.00 |
| Elgoibar | 01.10 | 02.40 | 04.40 | 06.10 |
| Deba | 01.20 | 02.50 | 04.50 | 06.20 |
| Mutriku | 01.25 | 02.55 | 04.55 | 06.25 |

MUTRIKU-FIBAR

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Mutriku | 00.00 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Deba | 00.05 | 01.35 | 03.35 | 05.35 |
| Elgoibar | 00.15 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| Eibar | 00.25 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |

ELBAR-AZPE111A

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eibar | 01.34 | 03.30 | 05.30 |
| Elgoibar | 01.40 | 03.40 | 05.40 |
| Azkoitia | 01.50 | 03.50 | 05,50 |
| Alpeitia | 01.55 | 03.55 | 05.55 |

AZPEITIA-EIBAR

| | | | |
|---|---|---|---|
| Azpeitia | 00.30 | 02.30 | 04.30 |
| Azkoitia | 00.35 | 02.35 | 04.35 |
| Elgoibar | 00.45 | 02.45 | 04.45 |
| Eibar | 00.55 | 02.55 | 04.55 |

*Autobusetako infonnazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora.* TeL 902 101 210.

## INTERESEKO TELEFONOAK

### OSASUNA

| | |
|---|---|
| Larrialdiak .................. | 112 |
| Anbulatorioa ............. | 943 03 26 10 |
| Planning-a................. | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak... ,,, | ..943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) ........ | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria ........... | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea ...... | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak ............ | 943 74 39 36 |

### GARRAIOAK

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak ............... | 902 54 32 10 |
| PESA (Eibar) ............... | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia ............... | 943 74 08 98 |

### UDALA

| | |
|---|---|
| Udaletxea .................. | 943 74 10 50 |
| Euskara Zerbitzua ......... | 943 74 43 66 |
| Ongizate zerbitzua ......... | 943 74 10 08 |
| Kultura Zerbitzua ......... | 943 74 21 58 |
| Gig ............................ | 943 74 14 61 |
| Udaltzaingoa ............. | 943 74 13 94 |
| Udal Kirol Patronatua...... | 943 74 44 15 |
| Mendaroko Udala........ ........... | 943 75 61 00 |

### BESTELAKOAK

| | |
|---|---|
| Elgoibarko Izarra .......... | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia.................. | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa .... ............ | 943 74 30 88 |
| Liburutegia................ | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola ............ | 943 74 21 45 |
| Mintxeta .................. | 943 74 43 15 |
| Parrokia .................... | 943 74 08 42 |
| Postetxea .................. | 943 74 15 47 |
| Gaztetxea .................. | 943 74 35 72 |

### ADINEKOEN ETXEAK

| | |
|---|---|
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia ....... | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa ....... | 943 74 45 65 |

### IKASTETXEAK

| | |
|---|---|
| Haur Eskola............... | 943 74 21 41 |
